

# ARRASATE

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 21a / 566. zenbakia

**BARRUAN,  
SANTAMASAK  
2001**

**Santamasak**





Tradizioren eusten  
dizuten jai herrikoiak



**Horra, horra,  
gure Olentzero!**

**ORAIN ETA HEMEN: ELAK AUZO LAGUN SALATU DU/8 • KULTURA: KEPA JUNKERA AMAIA UDAL ANTZOKIAN/15**

# GRUPO **RKUZ** 1950-2002



*Arkauz zure etxea da.*



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABAETA**




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABAETA**



## KALEINKESTA/ Badauketzu esperantzarik loterixie toketako? Ze egingo zeunke tokau ezkeror?



**FRANCISCA FERNÁNDEZ**  
Langillie



**ASIER SOLSAMENDI**  
Iksalrie



**CLAUDIA MUGERTZA**  
Jubilaue



**JULIO IGLESIAS**  
Jubilaue



**ROSA MARI DOMÍNGUEZ**  
Etxekoandrie



**LUIS FERNÁNDEZ**  
Langillie

Esperantzie ez da sekule be galtzen, horretarako jokaketan dogu, gaiñera. Ez dot askorik jokaketan, baiñe toketan bajat, hasteko, zorrak pagauko nittuke. Gero, biajeran bat edo...

Ez dot askorik jokaketan, eta ez dauket esperantzarik. Amak jokaketan dau, baiñe nik ez. Tokau ezkeror, gastau egingo neuke diru gehixena. Gorde, behintzet, ez neuke egingo.

Badauket esperantzie. Ez dot askorik jokaketan, baiñe zeozer bai. Tokau ezkeror, banatu egingo neuke. Familixiari apur bat, pobriei be beste apur bat... Danondako zeozer.

Esperantzie ez da sekule be galtzen. Normalien 8-10 dezimo inguru jokaketan dot. Tokau ezkeror be, askorik ezin da tokau, hortaz, larregi be ezingo neuke banatu. Pentsau egin biher.

Ez dot esperientzia haundirik eukitten, baiñe honezkeror ohitturia danez, ba, urtero erosten dot. Hala eta be, beti begiraketan dot egunkarixen, badaezpada be.

Bai, horixe! Neuk ez dot jokaketan, baiñe andriek jokaketan dau. Tokau ezkeror, jubilaue egingo nitzake gustora. Holan, lasai bizi izeteko oportunitadie euki-ko neuke.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK AHATEAK POZ-POZIK** Oraingo asteko txistuaren bila gindoazela, ARRASATE PRESSko kazetari batek udal langileak harraipatu zituen Santa Barbara azpiko ahateen ura garbitzen. Izan ere, askotan txistuak ateratzen ditugu eta joan den astean irakurle batek ahateen ura oso zikin zegoela gogoratu zigun. Hortaz, orain, garbitzeagatik txalotuko ditugu langileak, baita agindua eman diena ere.

### ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

#### Olentzero Arrasatera

Abenduaren 24an, astelehenean, Olentzero Arrasatera etorriko da arratsaldeko 18:00etan.

ORAIN ETA HEMEN /8

#### Garraioetan prezio igoerak

Datorren urte hasieratik aurrera, taxi eta herri autobusaren prezioak igo egingo dira.

KIROLA /10

#### Errugbia goiko postuetan

Arrasateko Errugbi Taldeak uste baino hobeto amaitu du denboraldiko lehen txanpa.

### ASTEKODATUA

8

#### PEZETA IGOKO DA AUTOBUS URBANOAREN PREZIOA

Leintz Garraioak-ek proposatukoaren arabera, urbanoaren txartel arrunta 100 pezetatik 108ra (0,65 euro) igoko da. Autobus-bonua, berriz, 75 pezetatik 81 pezetara (0,49 euro) igoko da.

### BESTEKEKESANA

**“Kartel honek atzean lan handia dauka. Aspaldi erabaki nuen kartelaren gaia urtearekin zerikusia izan behar zuela. 2001. urtean bi aukera nituen: 2001 gau, edo ezagunagoa izango zelakoan, Stanley Kubrick-en 2001eko espazioko odisea. Han azaldu zen tximu bat airera hezur puska bat botatzen, iragana eta etorkizuna lotuz. Eta niri bururatu zitzaidan gizona bakarrik ez, baizik eta txerria tximuaren ondorengoa izango zela. Erdi tximu erdi txerri. Gu ere txerretik gatozen edo txerri bihurtzen garen. Eta espaziorantz hezurra bota beharrean porru petrifikatu bat. Eta Portaloia espaziuntzia da, etorkizuna, XXIII. mendea. Dena harrizko bihurtuko da, eboluzioaren zain zeuden-eta”.**

**ANTTON OLARIAGA**  
ARRASATE IRRATIA/01-12-18

### HERRITARRENBERBAK/ Iker Ezpeleta



*Ez da kasualitate hutsa*

**E**do zorte txarra, jendearen artean entzun dudana moduan. Inork gutxi gogoratuko dituen, gertukoek izan ezik, istripu batzuetaz ari naiz; orain dela hilabete eskas hiru gazte akabatu zituen auto istripuaz. Sutan jartzen nau gazteen hiltzeko modu nagusia den “kasualitate” hau. Ez diet nik orain erru guztiak gidari gazte “txoriburu”ei botako, ezta antzik ere.

“Kasualitatea” denok autoaren beharra izatea; ez da inola ere hipermerkaturaren kontua (nola egin autorik gabe erosketak?), ez da inola ere prekaritate eta soldata baxuen kontua (nork eta nolatan hilabeteko kontratuaz etxe bat erosi edo alokatu lan lekutik gertu?), ez da inola ere administrazioak duen “karreteritis”aren kontua... Dena autoaren inguruan egituratuta dago, beraz, autoa beharrezkoa da.

“Kasualitatea” autoa pertsonen estatusaren adierazle eta irudi izatea; ez da inola ere

urtero sartzen dizkiguten Milaka iragarkien kontua (konturatu al zara ez dutela euren autoa saltzen, orokorrean AUTOA baizik?).

“Kasualitatea” ere autoa betidanik kapitalismoaren motorra izatea, auto gutxi saltzea ia rezesio kontua da.

**“Galdera asko eta erantzun gutxi, segi sua gasolinaz amatatzen. Gu, bitartean, errepidean hiltzen jarraituko dugu”**

Hau guztia ez da garraio publikoa edo bizikleta erabiltzeko esanaz konpontzen. Auto barik bizi dena, pertsonaia izateaz gain, ia elbarritu bat sentitu daiteke; non egin erosketak? lana? gaeuz?

Garraio publikoa ez da inolaz ere sustatzen; milioi batzuk zapatu gaudetan autobusak jartzeko (portzierto, non dago ordutegia?), milioi batzuk herri autobusa jartzeko... zer da hau “astopista”ko 120 mila milioiekin alderatuz? Galdera asko eta erantzun gutxi, segi sua gasolinaz amatatzen. Gu errepidean hiltzen jarraituko dugu. *Esos asesinos que impunemente matan miles de personas al día: Los automoviles liburua* (Hiru argitaletxea) irakurri.

**Arrasate**

Otalora lizentziaduna z/g  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera,  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla,  
Izaskun Bollnaga,  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 21**  
Amezua. Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74
- ZAPATUA, 22**  
Zabala. Zarugalde 42. . . . . 943 77 16 30
- DOMEKA, 23**  
A. Ruiz. Maala 31. . . . . 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 24**  
A. Morales. Araba etorb. 17. . . . . 943 79 18 65
- MARTITZENA, 25**  
A. Azkoaga. Ferrerías 1. . . . . 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 26**  
M.F. Azkoaga. Iturriotz. . . . . 943 79 79 99
- EGUENA, 27**  
M. Corcuera. M. Aranbarri 1. . . . . 943 79 22 26

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . . . 943 03 53 00  
Igualetoia. . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak. . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa. . . . . 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak. . . . . 112  
Gurutze Gorria. . . . . 943 76 55 76  
DYA. . . . . 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua. . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera. . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan. . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburu eta jaiegunetan. . . . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera. . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak. . . . . 943 03 53 11
  - Ikuskatzaila. . . . . 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak. . . . . 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako ambulanziaz. . . . . 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate. . . . . 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**  
Udal taldea. . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzailleburua. . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea. . . . . 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal zerbitzua). . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero). . . . . 943 12 01 62  
Gasa. . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak. . . . . 943 79 12 22  
PESA. . . . . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENDAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza. . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuaren egoitza. . . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

- |   |   |
|---|---|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  | <b>San Andrés eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   |
| <b>Domeka</b><br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)  | <b>Domeka</b><br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (gaztelaniaz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   |
| <b>Domeka</b><br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | <b>Domeka</b><br>10:30 (gaztelaniaz)<br>11:30 San Isidron (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)             |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)                       |
| <b>Domeka</b><br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)  | <b>Domeka</b><br>12:00 (gaztelaniaz)  |

**OHARRAK**

**BEGIRALEEI DEIALDIA**  
Txatxilipurdik urteko ekintzetarako begirale taldea sortu gura du. Interesatuak jo Pablo Uranga kaleko 4. zenbakira edo deitu 943-795446ra.

**KULTURAREN AZOKA**  
Abenduaren 21etik 24ra, Seber Altubeko ludotekan Arrasateko Euskal Kulturaren Azoka egongo da.

**MARGOLAN ERAKUSKETA**  
Abenduaren 20tik 2002ko urtarrilaren 6ra arte margolan erakusketa egingo du Conchita Zarraoak Harresi aretoan.

**ARRASATE MUSIKAL**  
Arrasate Musikaleko Orkestra eta Big Band taldeek kontzertua emango dute gaur Amaia Udal Antzokian.

**KEPA JUNKERA AMAIAN**  
Kepa Junkerak kontzertua eskainiko du domekan, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

**TXIKILANDIA MUSAKOLAN**  
Hilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean, Txikilandia parkea jarriko du Txatxilipurdik Musakolako kiroldegian.

**ARIZMENDIKO ZOZKETA**  
Arizmendiko zozketan 926 da zerbaki irabazlea. San Viatorrera jo opari bila.

**AEDrenAGENDA**

**ZAHAR BERRIKOEN AFARIA**  
Zahar Berrikoek afaria egingo dute abenduaren 29an AEDko tabernan, 20:30ean. Urtea ondo amaitzeko, kotiloi-jai antolatu dute.

**BAIONAKO LIZEOAREN ALDE**  
Baionako lizeoa hornitzeko bono-laguntzak AEDn salgai, 1.750 pezetan.

**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**ATBrendako egoitza berria aurkitu arte, obrak geldirik**

Osoko bilkuran ospitale zaharreko obrak bertan behera uztea erabaki zuten, ATBendako egoitza aproposa topatu arte. EHNEk aurkeztutako mozioa ere onartu egin zuten. EHNEkoek azokak bultzatzearen aldeko politika eta nekazaritza orekatua indartzea eskatu zuten, besteak beste.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Miaztu”*



Miazkatu, lamikatu.  
-Beixak eskua miaztu dotsa umiai.

GORKA ORTEGA

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Zapatuan, Arrasate Irratia Santamasetan**

Zapatuan, goizeko hamarretatik eguerdiko ordu batera, Arrasate Irratiak Santamasetako berri emango dizue zuzenean. Horretarako, kalera irtengo gara kaleko giroaren berri emateko. Gainera, Santamas Egunean protagonista izango direnak ere elkarrizketako ditugu. Esaterako, Andoni Egaña eta Ifazio Perurera. Bestalde, abenduaren 24an eta 25ean, ez gara zuekin zuzenean izango, baina bai abenduaren 26tik 28ra. Gero, urtarrileko lehen astean jai hartuko dugu.

**Gabon kantuak izango ditugu 24an eta 25ean**

Musika klasikoaren tarte astelehen eta martitzenean eskainiko dizuegu, 10:00etatik aurrera, eta Gabonetako kantuak izango dira entzungai. Bestalde, asteko errepassoa domekatik martitzenera izango da entzungai. J.M. Velez de Mendizabal idazleari egindako elkarrizketa, Antton Olariaga marrazkilaria egindakoa eta Pilar Lartzangurenekin Santamasetako txerriaren gaineko solasaldia. Asteko errepassoa 11:00etatik aurrera izango da.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Zapatua, 15	<b>-7°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Eguaztena, 12	<b>8°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>0,3 l</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 12	8°C -4°C -1l
Eguena, 13	6°C -2°C -1l
Egubakoitza, 14	5°C 4°C 0,3 l
Zapatua, 15	3°C -7°C -1l
Domeka, 16	5°C -2°C -1l
Astelehena, 17	4°C -1°C -1l

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
11:30 Albistegia  
12:00 Musika  
14:00 Errepikapena

**ASTELEHENA**  
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a

**MARTITZENA**  
21:00 Hi bizi hadi

**EGUAZTENA**  
21:00 Hitz eta pitz

**EGUENA**  
21:00 Mikelenea

**EGUBAKOITZA**  
20:00 Azkenberri.com  
21:00 Draxtor  
22:00 In session  
23:50 Asteko elkarrizketak

**ZAPATUA**  
10:00 Musika klasikoa  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:50 Asteko elkarrizketak

**DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak

## ASTEABIHITZETAN

### Ingurumen Kontseilu Sektoriala eratuta

Eguenean, Arrasateko Ingurumen Kontseilu Sektoriala eratu zuten. Arrasateko hogeita zazpi elkartetako ordezkariak elkartu ziren. Besteak beste, sindikatuetakoa kideak, ekologista taldeak, gobernu kanpoko erakundeak, enpresetako ordezkariak eta Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak batu ziren. Taldearen lana da herri mailako 21 Agenda prozesuaren barruan herri mailako politika ezartzea eta ingurumena kudeatu eta babesteko udal gestioa hobetzea. Aholkularitza lana egingo du taldeak.

### Apurketak egin zituzten Gazteluondon

Joan den astelehenean, Gazteluondoko kristalak apurtuta aurkitu zituzten ikasle eta irakasleek. Izan ere, joan den asteburuan, ezezagun batzuek txikizioak egin zituzten Gazteluondoko ikastola ondoan dagoen iturrian, eta hura apurtu egin zuten. Eta gero, iturri zati batzuekin ikastolako kristalak apurtu ei zituzten. Ez da lehenengo aldia Gazteluondoko ikastolan asteburuetan halako zerbaite gertatzen dena.

### IX. Fandango eta Arin-Arin Txapelketa

Joan den domekan, jende ugari gerturatu zen herriko plazara IX. Fandango eta Arin-Arin Txapelketa ikustera. Santamasetako ekintzen artean kokatutako ikuskizun honek jai giroa ekarri zuen Arrasatera. Zortzi eta hamalau urte bitarteko hamahiru bikote ibili ziren taula gainean dantza egiten. Hernani, Elgeta, Bergara, Orereta, Azpeitia, Azkoitia, Lezo eta Donostiatik etorritako gazteek maila ezin hobea erakutsi zuten. Irabazleak, 201 punturekin, Azkoitiko Leire Larrañaga eta Xabier Etxaniz izan ziren. Puntu erdi gutxiago lortu zuten bigarren postuan geratu ziren Josune Fernández eta Alex Torre bergararrek.



### 'KATIUSKA' ZARTZUELA ARRAKASTATSUA

Aurreko zapatuan eta domekan Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak Amaia Udal Antzokian antzetzutako *Katiuska* zartzueta arrakasta itzela izan zuen. Zartzueta ikusteko sarrera gehienak aurrez agortu egin ziren, eta arrasatearrek oso gustura ikusi zituzten emanaldiak.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

## Ondo pasatu datorren guztia

Urteko azken txanpan gaude. Esku artean duzun ARRASATE PRESS hau urteko azkenaurrekoa duzue, hurrengo urtekaria izango da-eta. Horren aurretik, eta gaurtik aurrera, Santamasek ditugu, Arrasateko jai herrikoienak, giro oso ona dutenak. Azoka egun handia bukatu eta berehala Olentzero eta gabon sakratuak datozkigu. Bakoi-

tzak nahi duen bezala ospatu ditzala, noski, ospakizun bereziekin, gabe edo lan zein ikasketez deskonektatzeko erabiliz. Egia da, hala ere, telebistako iragarkiei kasu eginez-edo, aspaldiko lagunekin edota urruneko senitar-tekoekin topo egiteko joera izaten dugula. Hori ez dago hain gaizki, behintzat.

Eta ziztu baten urtez aldatuko dugu, eta berriare-

kin euro santua datorkigu. A zer burukomin emango dizkigun hasieran, eta gerora ikusi behar! Horrez gain, noski, produktu guztien salneurriek gora egingo dute, zenbakia borobiltzearen argudioa erabiliz. Betiko kontua, betikoek poltsikoak beteko dituzte besteon kontura.

Bueno, ba, horretaz gain eta ohitura den bezalaxe, ondo pasatu Gabonak eta ea 2002. urte kapikua ona den edo, zergatik ez, hobea.

## ASTEKOIRUDIA




USANE

### ABIADURA HANDIKO TRENAREN AURKAKO MANIFESTAZIOAK JENDE UGARI BATU ZUEN

Joan den zapatuan Abiadura Handiko Trenaren aurka Arrasaten egindako manifestazio nazionalak jende ugari batu zuen Arrasateko kaleetan zehar. AHT Gelditu! Elkarlana taldeak antolatu zuen manifestazioa. Talde hori zenbait udal, alderdi politiko, talde ekologista eta erakunde osatzen dute. AHT Gel-

ditu! Elkarlanak Abiadura Handiko Trenaren proiektua geldiarazi eta horren inguruko giza eztabaida bultzatzea ditu helburu. Horretarako, Euskal Herri mailako manifestazioa antolatu zuen zapatuan. 1.500 eta 2.000 lagun artean elkartu ziren proiektu horren aurka egiteko.



Barceló  Bidaiak

Gabon gaba etxien goxo-goxo pasau ostien...

MALLORKA 43.265 pta  
TENERIFE 58.570 pta  
KUBA 140.100 pta

...eta beste aukera asko.  
Etorri eta galdetu.

Zorionak eta ondo-ondo pasau!

Maalako Errabala 33 · Tel: 943 79 70 11 Arrasate

# CLUB IYOLA

Elgetara bidea  
BERGARA  
943 76 11 29

LIBURU AURKEZPENA/Maritxu Kajoi jaiaren 25. urtean jazotako argazki eta pasarteak batu dituzte.

# Maritxuren 25. urteurrena ospatzeko liburua kaleratu dute Komisiñokoeak

IKER BARANDIARAN

Arrasateko herriak hogeita bost urte daramatza Maritxu Kajoi jaiaren ospatzen. Ez da marka makala parekorik ez duen jai batendako. Txikiteroen jaiak bilakaera handia izan du mende laurdenean, eta gaur egun, bere izaera galdu barik, ezagun egin da han eta hemen.

Maritxu Kajoi jaiak mende laurdena bete du, eta jaiaren antolatzailerik, Maritxu Kajoi Komisiñokoeak, jaiaren historia batzen duen liburua argitaratuta, horrelako urteurren berezia biribildu gura izan dute. Jaiak merezi du, zalantza barik.

Izan ere, Komisiñokoeak onartzen duten moduan, urteurren bereziari eta jai horren alde lan egin duten guztiei omenaldi berezia egiteaz gain, Maritxu Kajoi jaiaren inguruko informazioan hutsune handia zegoen. "Maritxu Kajoi mirarien eta jaiaren sorreraren inguruan, adibidez, ez dago idatzi askorik, eta jendeak askotan xehetasunak eskatzen zizkigun. Liburu honen bitartez, bai herritarrek baita komunikabideek ere badute jaiari buruzko zalantzak non argitu".

## NOIZ ARTE HORRELA

Maritxu Kajoi Komisiñokoeak kontatutakoaren arabera, aspaldi sortu zen jaiaren gainean informazioa batu eta zerbait plazaratzeko asmoa. Hasieran, bideo bat egiteko ideia ere izan zuten, baina azkenean, liburu bat egitea adostu zuten. Komisiñoko partaideez gain, laguntzaile berezi batzuk izan dituzte. Hain zuzen ere, Oihane Zubizarreta eta Amaia Doyague, idazteko lana hartu dutenak, eta Karmelo Uribarren, Mondragoeko euskara zaindu duena. Komisiñokoeak liburua Mondragoeko euskaran idaztearen inguruan ez dute inolako zalantzarik eduki: "Izatez, ez ei dago Mondragoeko euskaran idatzitako libururik, hortaz, aukera polita zen berari erabiltzeko, eta, gainera, Arrasateko jaiaren izan



Maritxu Kajoi Komisiñokoeak joan den egubakoitzean, elurpean, aurkeztu zuten liburua Maritxuren jatorrizko kokagunean.

## Argazki, pasarte eta bitxikeriak

Oso liburu txukuna atera du Maritxu Kajoi Komisiñuek. Kolore eta zuri-beltzezko argazkiz jositako hirurogeita hiru orrialde ditu *Maritxu Kajoi. 25 urte* lanak, eta liburuaren beraren aurkezpena Maritxu jaiaren bezain dotorea da, jakina.

Liburua sei atal nagusitan banatuta dago. Hauexek dira sei zatiak: *Historia, Urte Urte* -1977an jaiaren sortu zenetik 2001era arte urriko lehengo egubakoitza banaban errepasatuz-, *Nobenaxue, Maritxun txanpana, Kantuek kontu* eta *Maritxu nora eruen zaue?*

Urte asko pasatu dira 1977. urteko urriaren 5ean Maritxu Kajoi jaiaren lehengo



aldiz ospatu zenetik hona. Izan ere, estreinako 1975ean ospatzeko asmoa zuten, baina urte berean Txiki, Otaegi eta Iñaki Etxaberen hilketak izan zirenez, atzeratu egin zuten. Gauza antzekoa gertatu zen 1976an, Maritxu baino aste bat lehenago herriko parrokoa, On Jose Luis Iñarra, meza ematen ziharduela hil zen-eta. Azkenean, 1977ko urriaren 5ean estreinatu zen hainbeste zeresan eman duen txikiteroen jaiaren parte hartzea

eta jantzitako gorbata eta traje kopurua txiki samarra izan bazen ere, Komisiñokoeak dioten moduan, hazia dagoeneko ereinda zegoen eta fruituak ematen dihardu.

da, aproposena da".

Bestalde, liburua egun orduan zenbait zailtasun dituzte. Arrasatearren argazkiak plazaratu gura zituzten, eta herriko euren ingurukoak, eta horien artean handia eman die. Horretarako Maritxu Kajoi Komisiñokoeak jakiteko Komisiñokoeak di ibilitako jendeari eta gurek ei galdetu behar izan die "Donostiako hemerrotekako jaiaren ginen, baina han ez gurek ezer askorik aurkitu. Gurek ezaguna egin da jaiaren baina herri ez zen honen inguruan aurkitu idazten".

*Maritxu Kajoi. 25 urte* liburua kaleratzeko, Arrasateko Udalak laguntza jaso dute eta kostuaren beste zatia salmentekin berregituratzea espero dute. Izan ere, 2.000 pezetan jarri dute liburua, Biona tabernan, Txiki fotokopia dendan, Hire dendan eta Maalako okindegian. Joan den egubakoitzean, Juan Bautista parrokiaren koadroan, Maritxu Kajoiaren jaiaren kokagunean, prentsaurrekoa egin zuten eta hainbat liburu dituzten, bai Amaia Antzoki kanpoaldean bai Altuberen ere. Are gehiago, jaiaren aurrera Seber Altuberen tekaren, egingo den azokaren egongo dira Komisiñokoeak irabazteko salten. Aukerarik, horretarako da falta izango.

Liburua bera, neurri handian dokumentu historikoa da. Hain kanpora begira salduko omen da galdetu genien, baina ez da horrelako asmorik: "Azkeneko herritarrek edukiko dute liburua handiena. Hala ere, eguneko poka bakan batzuek, Maritxu Kajoi egunean hemen eguneko jaiaren eta jaiaren ezagutzen dutenak dituzten izan dizkigutela liburua bera".

Komisiñoko partaideoak liburua daude. Hogeita bost kideek osatzen dute Komisiñue gaur eguneko jaiaren parte hartzaileetako zenbaitzuk neska. Beren parte hartzaileetako batzuk badute ere, jende gazteak dituzte sartu da lanera, eta gogotsuak dituzte, erritmo berean jarraitzeko asmoz.



Erakusketa eta biltegia:  
Kale-txiki, 3 behea (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

### Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak  
Egur aroztegia

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

### Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak



Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50



ARRASATE  
HOTELA

Biteri, 1  
Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

HIES  
BERRI

Tel.: 943 79 26 16

# Badator Olentzero!

UBANE MADERA

Euskal Herrian gehien maite dugun ikazkina Arrasatera bidean da dagoeneko. Astelehenean, arratsaldeko 18:00etan iritsi gura du herrira. Bien bitartean, goizean, haren lagunak ibiliko dira lanean.

Eguerdiko 12:00etan hasiko dira Olentzeroren Arrasateko lagunak, Txoronpio eta Txoronpia, lanean. Herrian osteratxo egingo dute, Olentzerorendako gutunak jasotzeko.

## SEIETATIK AURRERA

Gero, arratsaldeko 18:00etan, iritsiko da gure ikazkina Arrasate-



18:00etatik 19:30ak arte izango da hemen.

ra. Lagunak izango ditu itxaroten Zaldibar kalean, eta hardik irtengo dira guztiak, Portaloirantz joateko; gero, Otolara kalera joango da Olentzero, handik Zarugaldera egiteko, eta segidan, Udala plazara iritsiko da. Udala plazatik San Andres auzora joango da eta gero, Garibai kalera. Garibai kaletik, berriro ere, Portaloira bueltatzeko bidea hartuko du eta, bukatzeko, Portaloitik herriko plazara joango da. Han 19:30ak arte geratuko da eta gero, agurra egingo zaio; besteak beste, Mutil dantza eta Herri dantza eskainiko dizkiote. Betiko moduan, gau partean banatuko ditu opariak ikazkin bizardunak. Hortaz, zintzoak izan!

# Autobus urbanoaren ordutegia datozen egunotan

UBANE MADERA

**Ondorengo jaiegunetan (Santamasetan eta Gabonetan) zenbait aldaketa izango dira herri autobusaren ordutegi eta geralekuetan. Izan ere, Santamasetan itxi egingo dituzte Biteri eta Garibai kaleak.**

Horrela, 21ean, bezperan, arratsaldeko 15:00etatik aurrera, 1 linearen Garibaiko geralekua Kontzezinora aldatuko da, estanko ondora; eta 2 linea ez da geratuko, egun osoan, ez Biterin ezta Legarren ere. Santamas egunean, 22an, berriz, 1 linearen Gari-

baiko geralekua Kontzezinora aldatuko da, estanko ondora; eta 2 linearen Garibaiko geralekua Kontzezinora aldatuko da, baina estankoaren parera, erreka ondora. Eta ez da geratuko Biterin ezta Legarren ere.

## GABONETAN

Bestalde, Gabonak direla-eta, abenduaren 24an eta 31n, autobus urbanoaren zerbitzua 20:00etan bukatuko da. Ondorioz, Eroskitik eta Gorostizatik arratsaldeko 19:30ean irtengo da azkeneko autobusa. Halaxe jakinarazi du Leintz Garraioak enpresak, autobus urbanoaren arduradunak.

## LABUR

### Kamera bidezko lehenengo hiatoko hernia ebakuntza egin dute ospitalean

Laparoskopia bidezko lehenengo hiatoko herniako ebakuntza egin dute oraingo astean Eskualdeko Ospitalean, arrakasta handiarekin. Hau da, gaixoari inolako ebakirik egin barik izan da ebakuntza. Kamera txiki-txiki bat duen hobi bat sartu zioten gaixoari gorputzean, eta kame-

rak pantailan ematen dituen irudiekin egin ahal izan zuten ebakuntza.

Badira urte batzuk Eskualde Ospitalean kamera bidezko ebakuntzak egiten dituztela, baina lehenengo aldia da hiatoko herniako ebakuntza kamera bidez egiten dutela.

### Arrasate ere sartuko da Debagoieneko Industrialdean. Markuleten izango da.

Laster, Debagoieneko Industrialdea eraikitzen hasiko dira. Markuleten izango da hori, S-3 izeneko sektorean. Eta, orain arte, Aretxabaletako, Oñatiko eta Bergarako industrialdeek osatzen zuten Debagoieneko Industrialdea, baina laster, Arrasateko industrialdea ere gehituko zaie.

Spilur-ek eta Foru Aldundiak bultzatuta, orain dela bi urte industrialdeak eskualdeka batzen hasi ziren. Debagoienekoa aurten sortu da, industrialdeen eragin-kortasuna eta ahalmen finantzarioa hobetzeko. Enpresa txiki eta handiak erakarri gura dituzte Debagoieneko Industrialdera.

### Zabaletako zubiak, urtarrilean

Eroski pareko Zabaleta inguruan egingo dituzten lanak urtarril hasieratik aurrera hasiko dira, aurreikuspenak betez gero. Halaxe adierazi du Ubiri Eraikuntzak enpresak, lanok egingo dituenak. Sei hilabete izango ditu lanok bukatzeko, eta 200 milioi pezeta-tik gorako aurrekontua.

	<b>Motor 16</b>	<b>Autofácil</b>	<b>Autopista</b>	<b>NORKAR</b> ARRASATE Zigarrola, 1 tel: 943 712 002 IURRETA Mallabieta, 4 tel: 946 215 643 	
	"...323 azkenaldiko salduen astinduari eusteko prest dago". (2001eko uztailak 3)	"Oso ezaguna ez den arren, osotasunean ezin hobea den produktua". (2001eko abuztua)	"...Mazda 323 kiroltasunaren paradigma da". (2001eko urriak 9)	Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua: 902 11 44 33	
			"Sentsazio onak gidatzerakoan, portaera dinamikoa dotorea eta sendotasun nabarmena...". (2001eko uztailak 17)		

**Prentsa ados dago: deportibo itxura duen turismoa. Edo alderantziz.**



**Auto y diesel SEMANAL**

"...atzekoak diren auroparrek eskaintzen duten kalitatea txiki utziko du...".  
(2001eko urriak 4)

**El País**

"Kiroltasuna, familiarentzako formatuan".  
(2001eko irailak 1)

323 1.6 100eko Zaldi Indarreko motorea, aire girotua, ABS eta 4 airbag ditu.  
2.225.000 pezeta.

Saimenta prezioa: Penintsula eta Balaieretan gomendatua. 323 Confort 1.5 100 cv Bertsioa. BEZ. Matrikuluaren gaineko Zerga. Benaratzko gasolina. Prezer Plana eta Promozioko deskontua barne. Bazarretako bertsioa: 323 1.6 Exclusive.



## Auzo Laguneko langileak prekarietate egoeran daudela salatzen du ELAk

UBANE MADERA

Auzo Lagun enpresako langileak urritasun egoeran daudela salatzen du ELAk. Halaxe adierazi zuen astelehenean emandako prentsaurrekoan. Auzo Lagunen lan egiten zuen emakume bat orain dela hiru aste bidegabe kaleratu zutela salatzen izan zen prentsaurrekoa.

ELA sindikatuko ordezkariak esanetan, Auzo Lagunek "Arrasateko ospitalean duen kontratan gezurretan oinarrituz Arrasateko emakume bat kaleratu du. Gainera, inongo lotsa barik, autoritate laboralaren aurrean onartzen du kaleratzeak ez duela funtsik eta, indemnizazioa mahai gainean jarriaz, Auzo Lagunen ustetan arazoari amaiera ematen dio". Horixe salatzen zuten Unai Martinezek eta Luis Miguel Sáenz Huitik, ELA sindikatuko ordezkariak. Gaineratutakoaren arabera, "langile hori kaleratu dute besteendako eskarmentu moduan; eta kaleratu dute behin-behineko langilea zelako eta antzinkotasun gutxikoa; hortaz, oso kaleratze merkea da".

Orain, ELAren helburua da langile hori berriro ere Auzo Lagunen lanean hartzea. Eta hori



Emakume bat kaleratu du Auzo Lagunek, eta ELAk mobilizazioak iragarri ditu.

lortzeko, mobilizazioak egiten hasi dira. Hala, atzo, esate baterako, ELAko ordezkariak Eskualdeko Ospitalearen aurrean elkar-tu ziren.

Baina, kaleratze horrekin batera, ELA sindikatuak salatzen du Auzo Lagunen urritasun egoeran daudela langileak. Lan-txandetan aldaketa ugari, soldata txikiak eta lanordu asko izaten ei dituzte Auzo Lagunen, eta aski dela adierazi diote, bereziki, aspaldiko kontua da-eta. Gaine-

ra, azpimarratu gura izan dute Auzo Lagunek oso propaganda abertzaile eta euskalduna egiten duela kanpora begira, baina "azken baten, kanpoko modukoak dira: kapitalismoaren eta lehiakortasunaren alde eta langileen kontra, hortaz, ez ditugu gura".

Hori dela eta, adierazi zuten harik eta Auzo Lagunek jarrera aldatu arte, haren kontrako borroka gogorra egingo dutela datozen hilabeteetan.


## LABUR

### Gobernu batzordean onartutakoaren arabera, urak batzeko lanak egingo dituzte

Oraingo asteko Gobernu batzordeak onartu duenaren arabera, hiru urteko zenbait kaletan urak batzeko lanak egingo dituzte. Hala, Arriaga, Navas de Tolosa, Andaluzia eta Cordoba y Oro kaleetan uraren sarea ipintzeko lanak adjudikatu ditu Arrasateko Udalak. Ia hamaika milioi pezeta gastatuko ditu Udalak. Bestalde, Mendiola Guridi kalean saneamendu sarea eta Garro jenerala kalean banatzeko sarea ipiniko ditu; gauzak horrela, ia hiru milioi pezeta inbertituko ditu.

### Arartekoak Udalaren jarrera kritikatu du Fagor Ederlanerako goi tentsioko haria dela-eta

Arartekoak Udalari jakinarazi dio kexa-espeditente bat bideratzen zela. Haren ustez, Fagor Ederlanerako goi tentsioko haria dela-eta, Arrasateko Udalak "ez die erantzun gura gure gomendioan azaldutako arazoiei; izan ere, gaiaren mamia alde batera utzita, berretsi egiten dute administrazio-erabakia". Aditzera eman diote gertatutakoaren berri emango diotela Legebiltzarrari urtero aurkezten dioten txostenetan. Udalaren ustez, berriz, Arartekoaren jokabidea ez da zuzena izan; lege-irritazio kontua da, eta hori epaitegi batek erabaki beharko luke.



### Informatika gelak (KZ Gunea) zabalik

Aurreikuspenak betez, atzo zabaldu zuten Arrasateko informatika gela berriak, Konekta Zaituz Gunea. Edozelan ere, irakurketa ofiziala, inaugurazioa, urtarrilean egingo dute. KZ Guneak irakasle bi izango ditu, eta hogeita ordenagailu, guztiak ere herritarren erabilerarako. Gela bateko ordenagailuek internet izango dute eta bestea hezkuntzarako izango da.

## Herri autobusa eta taxi zerbitzua igoko dituzte datorren urtean

UBANE MADERA

Urtarriletik aurrera garestiagoa izango da bai herri autobusa erabiltzea, bai eta taxi bat hartzea ere. Hain justu, Leintz Garraioak enpresak proposatutakoaren arabera, autobus urbanoaren txartel arrunta zortzi pezeta garestiagoa izango da: 100 pezetatik 108ra (0'65

euro) igoko da. Autobus-bonua, berriz, 75 pezetatik 81 pezetara (0'49 euro) igoko da. Bestalde, pezeta eta euroa, biak batera egongo diren hiru hilabeteetan txartel arruntak 110 pezeta balioko du.

### TAXIA

Taxiei dagokienez, Gipuzkoako Taxien Elkarteak, AGITAXek,

jakinarazi du taxiak %8 garestiagoak izango direla urtarriletik aurrera. Bandera jaitsiera 10 pezeta garestiagoa; kilometro bakoitza bederatzi pezeta garestiagoa egunean eta 15 pezeta garestiagoa gauean eta jaiegunetan. Ordubete itxaroten izanez gero, 177 pezeta gehiago izango da egunean eta 278 gauean edo jaiegunetan.



*Gabon zoriontsuak*

*eta urte berri on*

Barrutik dotore  
janzteko ARIANEn duzu  
aukera zabalena

# ARIANE

Ediko kalea, 14  
Arrasate  
Tel: 943 79 2733



## OLENTZERO MARRAZTEN ONENAK

**A**urten ere, ARKOk eta Txatxilipurdik antolatuta Olentzero Marrazki Lehiaketa izan da. Denera, 1.500 umek hartu dute parte, eta hamar onenak zeintzuk izan diren aukeratzea ez da lan makala izan. Aurten, gainera, Olentzero Marrazki Lehiaketako irabazleaz gain, bigarren irabazle bat izan da, postalen irabazlea, hain zuzen. Marrazki politena Jon Ruiz de Azuak egin du, eta harena da ARRASATE PRESSko azala. Postal politena, berriz, Ane Axpek egin du. Zorionak guztiei!



**Sail eta etxebizitzaren  
salmenta  
Eskoriatzan**

**Udalatx**  
Inmobiliari A

Tel.: 943 79 59 99  
Faxa: 943 79 92 00  
Maalako Errabala, 27 behea-ekz.  
ARRASATE

# GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

LUZAPENAK

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

**ORDUTEGIA:**  
Astelehenetan itxita.  
Asteartetik ostiralera:  
09:30 - 20:00  
Larunbatetan:  
08:00 - 14:30

# HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ERRUGBIA

# Arrasateko Errugbi Taldeak Eibarren aurka jokatuko du Gabon aurretik

Joan den asteburuan jokatutako partiduan etxeok erraz baino errazago irabazi zuten

XABIER URZELAI

Aurten jokatuko ote zuten zalantza izatetik denboraldi hasiera bikaina egitera pasatu da Arrasateko Errugbi Taldea. Jokalari gutxirekin, baina beti bezain gogotsu, arrasatearrek astebururo egiten diote aurre aurkari berri bati. Domekan, Sestao ez zen arerio izan.

Arrasateko Errugbi Taldeak domeka goizean jokatu zuen Sestaoren kontra, eta arrasatearrak 46 eta 5 nagusitu ziren. Aurretik ere argi zegoen Sestaoko taldea ez zela maila horretako talderik sendoena, eta domekan argi geratu zen hori.

Hasiera-hasieratik arrasatearrak alde hartu zuten, eta lehenengo 15 minutuetan etxeok hiru entsegu egin zituzten. Lehen zatia amaitu zenerako gauzak nahiko argi zeuden, eta bigarren zatian alde handitu besterik ez



XABIER URZELAI

Arrasateko eta Sestaoko jokalariek domeka goizean Garagartzako zelaian.

zuten egin. Jokoa aurrealdean izan zen, batik bat, eta beste lau entsegu, zigor kolpe bat eta lau transformaziori esker, arrasatearrek 46 puntu egin zituzten. Aurkariak, berriz, entsegu bakarra egin ahal izan zuten.

## AZKEN PARTIDUA, EIBARREN

Gabonak iritsi aurretik, talde arrasatearrek azken partidu bat jokatu beharko dute. Aurkaria Eibar izango da, eta seguru azken partidu hori aurrekoak baino gogorragoa izango dela.

# Boulder txapelketa arrakastatsua

XABIER URZELAI

Santamasetako II. Boulder Txapelketa lehena bezain arrakastatsua izan da; izan ere, zapatu arratsaldean, giro aparta izan zen Uarkapeko boulderrean. Guztira, 30 parte hartzaile izan ziren, eta Arrasateko gain, kanpoko

eskalatzaile ugari etorri zen txapelketara.

## EMAKUME BAKARRA

Txapelketak sekulako arrakasta izan zuen, eta gauza txar bakarra emakume eskalatzaileen eskasia izan zen. Olatz Altzua bakarrik animatu zen, eta, hala, zailtasun

gutxi izan zituen bere kategorian irabazteko. Arratsaldeko protagonistak, berriz, Mendieta anaiak izan ziren. Markel Mendieta izan zen nagusietan onena, eta anaia Ander 15 urtetik beherakoetan nagusitu zen. Argi dago Arrasaten badagoela harrobia, familia horretan, bereziki.

FUTBOLA

## Mondrak ezin izan zuen Eibarren partidua jokatu, zelaia izoztuta zegoelako

Arrasateko futbol taldeak Eibarko Gazteak taldearen kontra jokatu behar zuen zapatu arratsaldean. Gabonen aurretik jokatu behar zuen rreko azken partidua izan behar zen, baina seguruenik otsailaren 11n jokatu dute Gazteak-en kontra. Eibartarren futbol zelaia izoztuta egon zuten zapatu goizean, eta egiten zuen hotzarekin, ezin izan zuten jokatu. Egundako partidu guztiak atzeratu egin dituzte.

ESKUBALOIA

## Senior mailako bigarren taldeak denboraldiko lehen puntua eskuratu du

Jesus Mari Herreroren mutilek lehen puntua eskuratu zuten senior mailan joan den asteburuan, Aierru-ren kantxan.

Argi dago talde gazte hau mailari neurria hartzen ari zela, eta lehen puntu hori da horren adierazgarri. Arrasate Almirante bestalde, 26 eta 20 irabazi zion Urrietari, eta etxeok nagusitu ziren partidu osoan.

MAHAI-INGURUA

## Osasunaren eta goi mailako kirolaren gainean mahaingurua Eskola Politeknikoan

Arrasateko Eskola Politeknikoan goi mailako kirolaren eta osasunaren inguruko mahaingurua izango da abenduaren 27an.

Mahainguru horretan Dabid Etxeberria eta Igor Gonzalez Galdeano txirrindulariak, eta Kepa Zelaia eta Alberto Gonzalez ONCEko medikuak izango dira. Mahaingurua arratsaldeko 10:00etan hasiko da eta areto nagusian izango da.

XAKEA

## Arrasateko Xake Taldea inoiz baino liderrago da, asteburuan Zarautzi irabazi eta gero

Arrasateko xakelariak Zarautzen kontra jokatuzko amonak irabazi zituzten. Federazioak arrasatearrei jarritako zigorra kentzea eskatu baki zuenean, Zarautzko taldeak ez zuen jarrera oso polita erakutsi eta horrelakoak ez dira barkatzen.

Arrasatearrak 3,5-0,5 gailendu ziren, eta garaipen horri esker etxeok sailkapeneko alde handitu egin dute. Gabonetan irabazteko den hartuko dute, urtarrilerara arte.

# BOLIÑETE

## OILASKO ERRETEGIA

### Bertan jateko edo eramateko.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

### Ile apaindegirako artikuluak

Kontzeziño, 4 behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09

## arregl

- Arropa
- Larrua eta dama
- Puntua
- Errezelgintza
- Soinekogintza
- Bordatuak
- Goi mailako jostakintza
- Garbiketa

Eroski merkataritza gunea  
Tel.: 943 79 10 43

Salmenta eta zerbitzua

## IBABE GARAJEA

### MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

## ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65



- Asteazken zehar eguneko menua
- Aste bukaeretan plater konbinatuak

## ANBOTOSTE TABERNA

Larrea Plaza, 2.ena • 20500 • Tel.: 943 79 68 33



*Gabon zoriontsuak  
opa dizuegu*



Zure etxeko txokoak janzten

Uribarri etorbidea, 22 • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 63

## ZALDIBARARETOFUTBOLA



## FOTOKIROLA

## EMAITZAK

## A MULTZOA

Betrayer - Bikain Akademia	4-4
Usotz Potroak - Chapime Dribling	2-7
Iriztu Taberna - Rayo Aldeano	7-5
Makanaki - Aurrera Bolle	3-1
Lasagabaster - Saukelu Scream	1-1
Maldifa's - Bazar Toki On	5-15
Txotx - Fraguel Gol	3-8
Goma2 - Estu Ta Larri	7-3

## B MULTZOA

Irati STS - Abocajarro	5-4
Azkena YK - KJ Basati	7-2
Etxinai! - Etxerat	3-13
AKTA - AC. Surcos	4-7
E.G.D - Bin Laden	2-7
I.K.P - Komando Alpagat	6-5
D.D.K - AT Celaya	2-7

## SAILKAPENA

## A MULTZOA

	P	J
1. Bikain Akademia	13	6
2. Chapime Dribling	13	6
3. Goma2	12	6
4. Iriztu Taberna	10	6
5. Aurrera Bolle	8	6
6. Betrayer	8	6
7. Rayo Aldeano	7	5
8. Usotz Potroak	6	5
9. Saukelu Scream	6	5
10. Fraguel Gol	5	6
11. Lasagabaster	5	5
12. Estu Ta Larri	4	6
13. Makanaki	4	5
14. Bazar Toki On	3	5
15. Maldifa's	2	6
16. Txotx	0	6

## B MULTZOA

	P	J
1. Azkena YK	14	7
2. Etxerat	14	7
3. Irati STS	10	6
4. AT Celaya	10	7
5. AC. Surcos	9	6
6. D.D.K	7	6
7. Bin Laden	7	7
8. I.K.P.	6	6
9. Komando Alpagat	4	6
10. E.G.D	4	6
11. Koka Junior Basati	4	6
12. Abocajarro	2	7
13. Full Duplex	2	6
14. AKTA	2	7
15. Etxinai!	1	6

## GABONAK

Gabonak direnez, datorren urtarrilaren 12ra arte ez da Zaldibarko Txapelketako partidurik jokatu. Antolatzaileek adierazi dute ea talde batzuek hobeto hasten duten datorren urtea, jokoari dagokionez lasaia bai, behintzat. Zaldibarko antolatzaileen partetik, aprobetxatu Santamasa, Gabon zoriontsuak pasatu, eta urte berri on!



## Emozioa azken unera arte

Arrasateko Saskibaloia Taldeak erraz irabazi zuen joan den asteburuan Urdanetaren kontra jokaturiko partidua. Arrasatearrek derrigor irabazi behar zuten, eta hala egin ere. Etxeko taldea nagusi izan zen, baina oraingo asteburuan, gauzak bestelakoak izango dira. Arrasatearrek Tolosan jokaturiko dute, eta partidua irabazteaz gain, Loiola Indautxuk galdu egin beharko luke Arrasatekoek iguera fasea jokatzeko. (X.U.)

## Corcuera bikain hasi zen Chesten, baina ez zuen gura bezala amaitu

XABIER URZELAI

Arrasateko pilotuak Clio Kopako denboraldiko azken lasterketa korritu zuen joan den asteburuan, Valentziako Chesten zirkuituan. Arrasatearra bikain ibili zen zapatuko entrenamenduetan, eta laugarren denbora onena egin

zuen. Egun hartan eguraldi txarra egin zuen, eta badirudi arrasatearra hobeto moldatzen dela zirkuitua bustita dagoenean.

## DOMEKAN, GURA BAINO GAIZKIAGO

Zapatuko emaitzak ikusita, domekako lasterketak itxura ona azaltzen zuen, baina gauzak bestela-

koak izan ziren. Eguraldi ona lagun, Anderrek aurreko eguneko erreferentzia guztiak galdu zituen, eta hamabosgarren geratu zen.

Aurtengo denboraldia amaituta, oso gustura dago Ander egindako lanarekin, eta datorren urtean hor ibiltzea espero du.



CITROËN C5 BERRIA  
TEKNOLOGIA DIGITALA %100 ERABILGARRIA



www.citroen.es

ETOR ZAITEZ IKUSTERA:

CHAPIME TAILERRAK Citroëneko kontzesionario ofiziala

Araba Etorbidea, z/g. Tel.: 943 79 45 22 • ARRASATE



CITROËN C5

Citroënek edozer egin dezake zuegatik

CITROËN



Bitxiturgia • Erlojuturgia

*Momentu eder guztiengatik ...*



Maalako errebala, 5. 943 79 19 25. ARRASATE

# Santamasetako girorik onena!



**Itzala**

**Formal ibili Santamasetan!**

Iturriotz kalea, 19  
943 77 30 29

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

CAFÉ

**IAMAI**

KONTZEZINO KALEA 14

943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

**ESKIÑA  
taberna**

Ondo ibili Maritxutan!  
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

**KYMETZ**

Kazuelatxoak,  
ogitartekoak eta  
pintxoak

Maala, 15  
Tel.: 943 79 60 14  
ARRASATE

**ARROGOI  
TABERNA**

*Santamarak iritsi dira, zatorz sugana!*

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

**RUMBA TABERNA**

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



**Aupa arrasatearrak!  
Aupa Santamasak!**

**DISCO-BAR**



**Disco-Bar Gurelekuk  
SANTAMAS ZORIONTSUAK  
opa dizkizu.**

Zarugalde, 17 beheka • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29


# Kepa Junkerak 'Maren' azken diskoa aurkeztuko du domekan Amaian

IKER BARANDIARAN

**K**epa Junkera musikari entzutetsuak azken lana aurkeztuko du abenduaren 23an, domekan, Amaia Udal Antzokian. Sarrerek dagoeneko salgai daude Amaia Udal Antzokian bertan, 18:00etatik 20:00etara.

Bilboko Errekalde auzoan jaio-tako musikari honek ibilbide luzea egin du dagoeneko, eta kale-ratzen dituen disko guztiak nazio-artean arrakastatsu bilakatu dira azkeneko urteotan. Euskal Herriko musikariez gain, atzerriko artista ezagun askorekin lan egin du, eta zelanbait euskara eta euskal instrumentuak munduan zehar ezagutzera eman ditu.

Udaleko Kultura Sailak Amaia Udal Antzokia berres-treinatutako duela gutxi, eta geroztik gogor ekin dio ekitaldi entzutetsuak antolatzeari. Orain arte, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa eta *Katiuska* zartzue-la egin dira, eta badator, azke-nean, ikusmin handia piztu duen Kepa Junkera. Hitzordua abenduaren 23an, domekan, izango da, 19:30ean. Eta gaur, bihar eta etzi jarriko dituzte sarrerek salgai Amaia Udal Antzokian bertan, 18:00etatik 20:00etara. Antzokia betetzea ez da hain zaila izango, ziur.



MARISOL RAMIREZ / GARA

Irudian, Kepa Junkera eta bere taldekideak Baltistan Fundazioaren aldeko kontzertuan.

## ITSASOETAN ZEHAR

Kepa Junkerak *Maren* diskoa aurkeztuko du oraingoan. 2001. urteko abuztuan estreinatutako azkeneko lan hori. Disko horretan nazioarteko musikari ospetsuenetako batzuk batzea lortu du. Eta lanak berak munduko itsasoetan zehar ibilbide berezia proposatzen du: Itsaso Beltzetik Adriatikora; Indiako Ozeanotik Karibera; Kanariar Atlantikotik Kantauri Itsasora. Eta bidaia Urdaibaiko babesgunean, Bizkaiko bihotzean, bukatzen da. Era berean, Urdaibairi dedikatu dio *Maren* lana.

*Maren* honetan, beste askoren artean, Kepa Junkerak Andy Narellen *steel drum*a, Justin Valiren *valiha*, Olga Cerparen eta Marja del Mar Boneten ahotsak batzen ditu. Albokak, perkusioak, soinuak, txalapartak, ahots

bulgariarrak, gitarrak, pande-retak, gaitak, kontrabaxuak... hauek guztiak, eta beste askok, dute lekua disko unibertsal horretan.

Gure herrian egingo duen emankizunean ez dute musikari horiek guztiak parte hartuko, jakina, baina bai, ordea, euren kabuz, baita Kepa Junkerarekin batera, trebezia ondo baino hobeto erakutsi duten Euskal Herriko beste hainbat artistak, atzerrian ere errekonozimendua jaso izan dutenak.

Domekan Amaia Udal Antzokian Kepa Junkerarekin arituko diren artean, bere ohiko taldeaz gain, Ibon Koteron albokaria, Aukeran dantza taldea, Orea Tx osatzen duten Harkaitz Martínez eta Igor Otxoa txala-

partariak eta soka laukote bat arituko dira.

Bestalde, euskal kultura eta doinuak alde batera utzi barik, munduko hainbat lekutan sortutako musika uztartzen dituen koktel-ontzi bizia eskainiko digute Kepa Junkerak eta bere zuzeneko taldea osatzen duten musikari eta beste artista guztiak.

Denbora luzea igaro da (10 bat urte) Kepa Junkera Arrasateko Trikitilari Eskolaren hasieran bizpahiru egunez irakasle gisa ibili zenetik hona (beste batzuek ordezkatu zuten). Eta denbora tarte horretan oso ezagun bilakatu dira, Kepa Junkera bera baino, hark kaleratutako lanak eta egindako lankidetzak. Ea domekan zer eskaintzen diguten Amaia Udal Antzokian.

## KULTURAPILULAK

### Gaur zabalduko dute Arrasateko Euskal Kulturaren Azoka Seber Altubeko ludotekan

AED, Txatxilipurdi, Loixe, eta Margo eta Tailaginen elkarteek antolatutako Arrasateko Euskal Kulturaren Azoka gaur zabalduko dute Seber Altubeko ludotekan, abenduaren 24ra arte. Aurtengo azoka planteamendu zabalagoarekin dator: euskarazko liburu, disko, CD-ROM, bideo, egutegi eta jolasez gain, herriko artisau eta artisten lanak ikusi eta erosteko aukera ere eskainiko du.

### Jokin Zaitegi Itzulpen Lehiaketaren lehen saria Arrasateko Ander Etxeberriak irabazi du

Atzo, Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Lehiaketako epaimahaia batu zen. Aurten, 15. aldia izan du AEDk antolatzen duen lehiaketak. Monterrongo hitzaldi aretoan egindako ekitaldian irabazlearen izena jakinarazi zituzten. Lehengo saria, hau da, 1.250 euro eta oparia, Ander Etxeberria arrasatearrak jaso zuen. Bigarren saria, berriz, 625 euro eta oparia, Irungo Karlos Zabalak jaso zuen.



IKER BARANDIARAN

Zarraoak estilo errealista praktikatzen du eta paisaiak margotzen ditu.

## Conchita Zarraoaren erakusketa Harresi aretoan

IKER BARANDIARAN

Conchita Zarraoa arrasatearrak margo erakusketa zabaldu zuen atzo Harresi aretoan. Erakusketa hori urtarrilaren 6ra arte egongo da ikusgai, 18:00etatik 20:00ak arte lanegunetan, eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara asteburuetan.

Conchitak aspalditik du margotzeko zaletasuna, baina Zeziagan eta Zarraoan dendari lanetan ibili da erretiratu artean. Hala ere, badira hogeita bost urte Julio Galartarekin olioak margotzen hasi zela. Conchitak, batez ere, paisaiak lantzen ditu eta estilo

errealista praktikatzen du. Arrasateko Margo Taldeko partaide bada ere, etxean edo leku itxietan margotu baino, askoz gustukoago du lagunekin kanpora jo eta paisaiak lekuan bertan pintatzea. Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Bizkai aldean edo Araban igaro izan ditu goiz eta arratsalde asko. Batez beste, bospasei ordu igarotzen ditu margolan bakoitza lekuan bertan egiten.

Duela sei urte ere erakutsi zituen lanak Harresi aretoan Conchita Zarraoak, eta oso harrera ona izan zuen, gainera. Bestalde, Onandia gozotegian erakusgai ditu lanak beti.

- Ordenagailuak
- Inprimagailuak
- Konponketak
- Eguneratzeak
- Osagarriak
- Internet



Okendo, 1  
Tel./Faxa: 943 77 16 68  
E-Mail: microsinformatica@jet.es



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:  
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32



### ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, EQ- II • ARETXABALETA  
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

## BEHEKODENDATIK

## Mikel Lizarralde

## LIZARRALDE BIZIKLETA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Mikel Lizarralde oñatiarra bada be, mondragoen pasetan dittu ordu gehixenak, astien bai, behintzet. Bizikleta denda bi dauko, eta lehenago be ziklistie izendakue da. 1984ien, Orbea taldiakin profesioaletan ibilli zan, baiñe urte txar baten ostien, beste bide bati heldu eutzen.

## Amets bat?

Loterixie toketie, eta zorrak pagetie.

## Amets txar bat?

Lagun on bat galtzie.

## Egin dozun azken biajie?

Costa Ricara. 1998xen.

## Txartel horixe, zeñei?

Realari.

## Eta gorrixie?

Espainiako politikuei.

## Pelikula bat? Liburu bat?

## Disko bat?

*La pasión Turca* / Ziklismoko aldizkarixek leiduten dittut / Musika euskaldune.

## Drogak legalizauko zittukie?

Bai, baiñe kontrolaute.

## Eta prostituziñue?

Hori be kontrolaute.

## Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

## Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Euskal girue, eta hemengo jentie.

## Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

## Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskaldun danak bat egitten ahalegindduko nitzake.

## ARRASATE PRESS barrixe gustau jatzu?

Bai, ondo dago.

## Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Miguel Indurain.

## Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Bin Laden, edo...

## Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?



X.U.

*"Bizikletie gaur egungo trafikua arezue konponketako bide bat izan leike"*

Txarra naz tranpetan. Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

*Hitzetik hortzera / La movida deportiva.*

Gabonetan loterixie tokau ezker, ze egingo zeunke?

Hobeto bizi.

Lanien ze da gehixen gustetan jatzuna?

Bezeruekin tratuen egittie.

Eta gutxien?

Representantiekien tratuen egittie..

Dendari ez bazitze, ze izengo zitzake?

Autobus gidari.

Ziklista ala bizikleta saltzaille nahixago?

*"Dopinga beti egonda, baiñe lehen, kontrol gutxiago eta ezjakinttasune zan nagusi"*

Bixetan ibilli naz... saltzaille nahixago.

Bizikleta marka bat?

Mendiz, euskalduna dalako.

Zeure denboran baeuen doping arazorik?

Hori beti egonda, baiñe orduen, ez euen kontrolik.

Oñatin ala Arrasaten saltzen dozu gehixago?

Arrasaten, haundixague da.

Bizikletie trafikua arezarako konponbidie izan leike?

Duda barik.

Baiñe aldapa larregi ez dago hamen?

Gaur egun dagozen bizikletekin edozein aldapa errex asko igo leike.

## NIREBIDAIAHURA/ Mainer Alzelai

Hego Amerikara / 2000ko urtariletik abendu arte

Mainerrek Hego Amerikako hainbat lurralde bisitatu zituen joan den urtean Ikerrekin batera. Urtarrilean irten ziren, eta hamabi hilabeteetan Paraguay, Bolibia, Peru eta Ekuador bisitatu zituzten. Ez ziren oporretan joan, bizipen berrien testigu izatera baizik. Lizarralde haiek gertu-gertutik bisitatzeko izateaz gain, hango jendearekin hartu-emanan izan eta hizkuntza eta kultura bereganatzea zen euren helburu nagusia. Mainerri Bolibia gustatu zitzaion, bereziki, "nahiz eta Lizarralde bakoitzak duen bere enkantua". Leku batetik bestera sekulako aldaketa dagoela azpimarratu du Mainerrek, baina turismoa nagusi den lekuetan, dirua dela-eta, jendeak galdu egiten du zera berezi hori. "Leku askotan gauza gutxiarekin guztia zeukatela zirudien, horrek harritu ninduen, bereziki, gauza gutxiarekin aberatsak direla".

Mainer eta Iker artisau lanean ibili zen han. Hainbat produktu egin (lepokoak, danborrak...) eta batzuetan saldu eta beste batzuetan trukean egin behar zutena eskuratzen zuten. "Han benetan zoriontsua izan naiz. Lasai-lasai ibili gara, eta beharrezkoa soilik edukita". Horrelako bizipen baten gauza asko ikasten dira. "Ekonomikoki herri pobreak dira, baina nortasuna biziki defendatzen dute, eta balio asko herriak dira".

Hara iritsi zirenean gogorra egin zitzaion hango bizi erritmo lasaira moldatzea, eta nolabaiteko antsietatea zeukaten. Urte bat Hego Amerikan egon eta gero, hona iristean hemengo bizi erritmoa moldatzea ere ez da gauza samurra izan. "Hasieran, ibili ere polikiago ibiltzen nintzen, baina hau ez da lasai egoteko leku aproposena, eta argi daukat lehenago edo geroago berriro ere bueltatuko naizela".

XABIER URZELAI



Mainer, Urubankako Inken aran sakratuan.



*"Han bakean egon gara, beharrezkoa edukita soilik"*

*"Pobreak, baina nortasun handiko herriak dira"*

ZABALA  
oinetakoa

53 urtean elkarrekin ibili gara  
Ospa ditzagun San Joanak  
Erdiko kale, 13 • Tel.: 943 79 14 27



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



E, TXO!

**KOADRILEK EGITARAU  
PRESTATU DUTE JAIETARAKO**

Herriko koadrilak animatu eta, San Juane-tan moduan, Santamase-tan ere egitarautxo bat prestatu dute biharko. Hain zuzen ere, 11:00etan, txupinazoa botako dute eta hortik aurrera, jaiak murgilduko dira herriko gazteak. Gero, Gaztetxera joko dute eta hantxe sagardoa eta txistorra dastatzeko aukera ezin hobea izango da. Bostehun pezetan edalontzia erosiz gero, edaria eta jana debalde izango da. Eguerdian, berriz, Santamas Komisiñuek antolatutako herri bazkarira joaten saiatuko dira. Bukatzeko, 18:00etatik aurrera, sagardotegi mugikorrarekin triki-poteoa antolatu dute herrian zehar. Ezinbestekoa baserriar jantzea.

**TXATXILI, BEGIRALE BILA**

Txatxilipurdi elkarteak urtean antolatzen dituen ekintzetarako begirale taldea osatu gura du. Interesatuak jo dezatela Pablo Urangako 4. zenbakira edo dei dezatela 943-795446 telefonora.

**MADRILERA TXANGO**

Gaztetxetik txangoa antolatu dute abenduaren 29rako. Autobusa antolatu eta Alcalá Mecon Amaia Arrieta arrasatearra bisitatuko dute.

**GABON ZAHARREKO TXANDAK**

Gabon zahar egunean Gaztetxeko tabernan txandak betetzeko deiak oso harrera ona izan du. Izan ere, dagoeneko txandak beteta daude.

**HERRIKO TALDEAK KONTZERTUAN**

Zenbait gazte herriko musika taldeen kontzertua antolatzen ari dira. Kontzertu hori abenduaren 28an izango da, Gaztetxean.

**GAZTEKONTUAK / DISKO PROPOSAMENAK**

**Opariren bat egiteko,  
hainbat diskoren  
proposamenak**

IKER BARANDIARAN

Gabonak sasoi kontsumistak diren neurrian, opariak eta erosketak egiteko ohitura dugu. Askok liburu eta diskoak erostea aukeratzen dute. Hori aprobetxatuz, hainbat disko ekarriko ditugu gogora.

Euskaldunak oso musikazaleak gara, are gehiago gazteak. Horren ondorioz, musika talde askok kaleratzen dute diskoa.

**DANCE-TIK BLACK-ERA**

Esku artean ditugun diskoen artean, zenbait musika estilo daude. Gaztelupe Hotsak diskoetxeak kaleratutako Onddo eta Txuma Murugarren taldeen pop-rock doinu itsaskorak.

*Onddo, Txuma  
Murugarren, NCC,  
Kuraia eta beste  
batzuk proposatu  
dizkizuegu*

Gazteek gustuko dituzten doinu gogorragoetara jotzen badugu, hor ditugu Arrasateko Anger eta Numen, esaterako. Bata, *metale-roa* eta bestea, *blacka*. Bestela, punk-rocka berbagai hartuz gero, Nuevo Catecismo Catolico donostiarren seigarren lana eta Kuraia talde berriaren (Dut, Anestesia



IKER BARANDIARAN

Diskoak oparitzea ohitura bilakatu da gure herrian.

eta Corazon del Sapoko partaideekin) lehengo diskoa. Eta horrekin batera, *Eusko Dance* eta zen-

bait talde nafarrek bertsoen inguruan ateratako bilduma ere aukekin.

**LOTSABARIK / Joana Mancisidor**

**“Ardurak edukitzeak arduratzen nau”**

IKER BARANDIARAN

Joana Mancisidor astero-astero Arrasate Irratian aritzen da *Hi Bizi Hadi!* saioan. Hala ere, irratiaz gain, zaletasun ugari ditu, batez ere, marraztea. Bestela, aisialdiari probetxua ateratzeko, kanpora jotzen du.

• Txikitari, zer izan gura zenuen?

Marrazkilaria, betidanik marraztea gustuko izan dudalako. Baina niretako marrazten dut, batez ere, zuri-beltzean.

• Zelan ikusten duzu zure burua hemendik 20 urtera?

Zaharragoa. Ez dut uste oraingo zaharren modukoa izan-

go naizenik, pentsaera eta zaletasun gazteagoak izango ditut.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

Hogei urte aurrekoa. Hortik aurrera, urteak azkarrago igarotzen direla esaten dute.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Ondo igarotzeari eta egiten dudana gustura egiteari.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Ez dakit, ezerk ez.

• Eta zerk arduratzen zaitu gehien?

Urteak igarotzeak. Ez dut hogei urte egin gura. Orain arte bezala jarraitu gura nuke. Ardurak edukitzeak arduratzen nau gehien.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Denetik, kanpora jo behar izaten dugu. Zinema onak, diskotekak, denda hobeak... falta zaizkio Arrasateri.

• Zer egingo zenuke milioi bat pezetarekin?

Bidaia exotikoren bat egingo nuke, munduan zehar ibili.

• Nora joango zinateke?

Indiara edo Nepalera; ikusgarriak iruditzen zaizkit.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Dena, orokorrean.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Itxurari. Gorputzari, arropari... Gero, ezagutu egiten duzu.



ADINA: 19 urte • IKASKETAK: Modulu bat Eskola Politeknikoan • ZALETASUNAK: Marraztea, irratian berba egitea, abestea, dantza...  
LIBURU BAT: 'Hamairu eta bat' eta 'Puntu eta koma etilikoak' • FILM BAT: 'Doberman' • MUSIKA TALDEA: Bakalaoa, Hamlet, Korn...

**ION LEHIOAK**

Leihoak  
Ateak  
Horma armairuak  
Zoruak  
Kanpantorra, 2  
Tel./faxa: 943 79 11 35  
20500 ARRASATE

**ASESORIA  
ARRASATE**

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00



**UGARAN  
jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE



ARRASATE  
**Irene Lasaga**  
Abenduaren 24an, 7 urte.  
Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Iraitz Gutiérrez**  
Abenduaren 26an, 6 urte.  
Zorionak, familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Vitori Altuna**  
Abenduaren 23an, urtebetetzea. Zorionak, bihotzez, familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Felipe Hermosel**  
Abenduaren 21ean, 11 urte. Zorionak, familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Andoni García**  
Abenduaren 24an, 9 urte. Zorionak, familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Ane Iñurrategi**  
Abenduaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, Ibon, Izar eta Rafaren partetik.




ARRASATE  
**Maria García**  
Abenduaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, familiakoan partetik.



ARAMAIO  
**Amalur Belategi**  
Abenduaren 18an, 2 urte. Zorionak, Ane eta Alimbareren partetik.



ARRASATE  
**Leire Barona**  
Abenduaren 16an, 30 urte. Zorionak, Kajoiko umezain-tzaileen partetik.




ARRASATE  
**Iñigo Lasaga**  
Abenduaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE  
**Pablo Salaberri**  
Abenduaren 31n, 4 urte. Zorionak, Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE  
**Jon Lizarraga**  
Urtarrilaren 5ean, 4 urte. Zorionak, Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE  
**Mikel Retegi**  
Urtarrilaren 8an, 4 urte. Zorionak, Umezaintzako laguntxoan partetik.



BERRIZ  
**Maite Poferrada**  
Urtarrilaren 14an, 6 urte. Zorionak, Umezaintzako laguntxoan partetik.



ARRASATE  
**Maider Zubillaga**  
Abenduaren 7an, 4 urte. Zorionak, Maider! Familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Gorka Aztiria**  
Abenduaren 28an, 24 urte. Zorionak, inuxente! TMT.



ARRASATE  
**Imanol Elorza**  
Abenduaren 24an, 24 urte. Zorionak, lankidean partetik.



ARRASATE  
**Ainhoa Urrutia**  
Urtarrilaren 2an, 4 urte. Zorionak, Ainhoa! Familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Mertxe Etxebarria**  
Abenduaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak, familiakoan partetik.



ARRASATE  
**Iker Barandiaran**  
Abenduaren 14an, 29 urte. Zorionak, lankidean partetik.

## Adi!

Hurrengo zenbakian abenduaren 15etik urtarrilaren 15era bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzenera arte jasoko ditugu ARRASATE PRESSko egoitzan.



**Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.**

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku! Otalora lizentziaduna, 31.

## BABESLEA

**Juan Manuel Berrueta**

ARGAZKILARIA

- Estudioa
- Erreportajeak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 88 18.





# URONDO

## Elektrizitatea


- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# DISCOPOLIS



Juan Carlos Gerra .1  
Arrasate  
943 77 02 13



## JOXAN

Bitxitegia eta Erlojudenda

Ondo pasau Santamasak!

Maisu Arano Pasealekua, 8  
20500 ARRASATE  
Tel : 943 79 22 24

# Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 21a / 9. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna z/g 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Gabon giroan erabat murgilduko da herria datorren astetik aurrera

UBANE MADERA

Gabonak bete-bete eginda datoz Aramaiora aurten. Olentzeroren ongietorriarekin hasita, makina bat ekitaldi izango dituzte urte bukaera arte; tartean, umeei zuzendutako ekimenak: Haurren Euskararen Eguna Murgian eta txotxongiloak Aramaion, adibidez.

Astelehenean, 18:00etan irtengo da Olentzero Aramaio kiroldegitik. Kalean behera egingo du,

plazara heldu arte; eta han batuko ditu herriko umeei idatzi dizkioten gutunak. Bien bitartean, Bixente Goikoetxea abesbatzak Gabon kantak abestuko ditu eta gaztainak, ardoa eta sagardoa banatuko dituzte herriko plazan elkartzen direnen artean, erabateko Gabon giroan. Hori guztia, San Martin Eskolako Gurasoen Elkartearen eskutik.

Eguaztenean, hilaren 26an, berriz, txotxongiloak izango dira kultura etxean. Bihar izeneko taldeak *Lagunekin Baratzean* ikusizuna eskainiko du kultura etxe-

an, 18:00etatik aurrera.

Eta, umeei segituz, egubakoitzean, hilaren 28an, umeei urteroko hitzordua izango dute euskararekin: Haurren Euskararen Eguna izango da Murgian. Sei eta hamabi urte bitarteko umeei dago zuzenduta egun hori, baina seitik beherakoak nagusi batek lagunduta joan ahal dira.

Murgian puzgarriak izango dituzte goizeko 10:00etatik 12:00etara; 12:00etan, berriz, Kiki, Koko, Moko eta Flash pailazoan saioa izango da; eta, bukatzeko, 13:00etatik 14:00etara, tailerrak egingo dituzte. Euskararen Egunean parte hartzeko, abenduaren 21a baino lehen eman behar da izena, ludotekan. Autobusa 09:15ean irtengo da Aramaiotik eta 14:15ean bueltatuko da.

Txotxongiloak eta Euskararen Eguna Zuiako Koadrilak antolatu ditu eta Arabako Foru Aldundiak eta Aramaio Udalak laguntzen diote.


### ESKALADA

Bestalde, egubakoitzean bertan, kirol eskalada hizpide izango da kultura etxean, 19:00etan. Eneko eta Iker Pou anaia eskalatzailak egingo dute berba. Diapositibak ere emango dituzte hitzaldiarekin batera.



UBANE MADERA

Olentzero 18:00etan irtengo da kiroldegitik. Handik plazara joango da, gutun bila.



## Karobien erakusketa zabaldu dute

Bihartik aurrera, karobien gaineko erakusketa zabalduko dute kultura etxean. Urtarrilaren 7a arte izango da zabalik, astelehenean egubakoitzera 17:30etik 19:30ak arte, eta zapatu eta jaiegunetan 12:30etik 13:30era eta 19:00etatik 20:00etara. Karea zelan egiten den ikusi eta ikasteko aukera izango da, bideo eta guzti. Bestalde, abenduaren 29an, karegintzaren gaineko tertulia izango da kultura etxean, 18:00etan. Hiru herritarrek (Urdingio baserriko Iñaki Larrañagak, Saturraldeko Patxi Eljaldek eta Salazango Julian Untzuetak) egingo dute berba.

## HERRITARREN HITZA / Patxi Uribarren • Itzultzaile-idazlea

### Urkiolako Parke Naturala

Hamar urte igaro dira Urkiolako Parke Naturala sortu zenetik. Kudeaketa plana 96-1-25ean onartu zen. Horretarako harremanak izan ziren Parkean zerikusia zuten sektoreekin. Horrek helburuak hobeto ulertzea ekarri zuen.

Parkeak Mugarra-Urkiola-Anboto-Arnagio mendi-lerroan du bizkarrezurra. Barruan, bertako jendeak oso ondo zaindutako balio handiko zuhaitzak (pagoak, batez ere) aurkitzen dira. Pinu asko sartu bada ere, pagadi ederrak (txara) ageri dira, lehenagoko itxura zainduz.

Urkiolako Parkeko zuzendaritzan Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko eta Arabako aldundiak

eta bestelako hainbat erakundek ere parte hartzen dute. Denen artean onartzen dituzte planak eta inbertsioak.

### Urkiolako Parke Naturaleko inbertsioak (91-00)

Hezkuntza eta jolas jarduerak: 224.714.596 pta; baso erabilera: 192.095.055 pta; abereerabilera: 73.632.091 pta; azpiegiturak: 360.573.824 pta; ikerketa eta lan teknikoak: 134.550.355 pta; lurra erostea: 95.442.040 pta; konpentsazioak eta bertakoen integrazioa:



"Parkerik ederrenetarikoa bat gure lurretan dugu"

eginiko gauzarik ederrenetarikoa. Herriaren bizitza kalitatearen ezaugarri garrantzitsua ditugu. Parkeek babesten dute

14.820.247 pta; Urkiolako Santutegia eta inguruak: 40.889.508 pta; Konponketak, tresneria: 4.453.693 pta. **Guztira:** 1.141.171.408 pta.

Parke hau dugu EAEn egin zen lehenengoa. Geroago beste batzuk etorri dira. Eurok ditugu gure agintariak, udalek barru,

gure ingurua, ederra izaten jarraitu dezan.

Urkiolako Parkean gauza asko egin dira: bideak konpondu, sasiarte-otadiak garbitu, bertakoak diren zuhaitz (urkiak eta) sartu, hainbat animalari babesa eskaini, Urkiola inguruak zoragarri jarri...

Gauzak hobeto egiteko bideak ere egongo ziren bai, jakina. Baina egindakoak hor ditugu eta poztu egin behar genuke guztiok, nork egin dituen begiratu gabe. Egitekoak egiteko, eta arazoak arazo, aramaioarrok pozik egon gaitezke, parkerik ederrenetarikoa bat gure lurretan dugulako.

## LABUR

### Aurrekontuak eta gazte lokalak oraingo asteko bilkuran

Gabonak direla-eta, osoko bilkura aurreratu eta eguaztenean egin zuten. Besteak beste, 2002ko aurrekontua izan zuten hizpide: Ogasun batzordeak 300 bat milioi pezeta proposatu zituen datorren urterako. Gazte lokalak erabiltzeko irizpideak ere aztertu zituen udalbatzarrak. Eta, azkenaldian, kalean agertu diren pintada batzuk gogor gaitzesteko proposamena ere landu zuten; hain justu, aparkatzea debekatzeko duen seinalea eta Udaleko atea margotu dituzte ezezagunek.

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (bandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal Kirolegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

**LABUR**

**ERROLDEN GAIKEKO OHARRA**

Norbaitek errolda betetzeko edo entregatzeko badu, edo beste inolako arazorik badu, Udalak jakinarazten du abenduaren bukaeran erroldari buruzko lanak bukatuko direla. Hortaz, kasu horiek atzertzeko, errolda-agentea datorren astean izango da Udaletxean: abenduaren 26an, eguaztena, 10:00etatik 14:00etara. Kezkaren bat izanez gero, Udaletxera deitu.

**LUDOTEKA ETA LIBURUTEGIA**

Gabonak direla-eta, abenduaren 21etik, egubakoitza, hasi eta urtarrilaren 7ra arte itxita izango dira bai liburutegia bai eta ludoteka ere.

**OSASUN ETXEA ITXITA**

Abenduaren 24an eta 31n osasun etxea itxita izango da. Hortaz, larrialdiren bat izanez gero, Arrasateko zerbitzura jo beharko da, 09:00etatik 14:00etara; eta 14:30etik aurrera, Eskualde Ospitalera.

**MEZA BEREZIAK**


Abenduaren 25ean, meza berezia izango da: herriko abesbatza osoak parte hartuko du. Eta urtarrilaren 1ean, kantu bereziak, abesbatzaren eskutik.

**KULTURA**

*Acto Para la Nochebuena* liburuaren originala, Mondragoen

Martitzenean, *Acto Para la Nochebuena* liburuaren gaineko ekitaldia egin zen Mondragoen. Pedro Ignacio Barrutia Aramaio semeak idatzi zuen liburua, eta Hego Euskal Herrian idatzitako lehenengo antzerki liburua da. Liburu horren original bakarra dago munduan, eta martitzenean, hori ikusteko aukera izan zen Mondragoen. Jose Maria San Sebastian *Latxaga* euskaltzaina da eskuizkribu horren jabea.

1682. urtean jaio zen Pedro Ignacio Barrutia Aramaion; aita erlijiosoa zuen, eta gurasoak ez ziren sekula batera bizi izan. Pedro Ignacioren haurtzaroz ezer gutxi dakigu, baina 1710. urtean eskribau lanetan hasi zen Arrasateko Udalean. Ustez, orduantxe idatzi zuen liburua.



**HERRIKO KONTUAK**

**DONTXOREN ALABA II**

(Patxike Ibabek kontatuta)

Dontxo ei zen bastante aberatsa. Eta itxuraz, aitek etzauen gure auken bere nobixue; zen Gantzakue, Patxi auken izena. Eta etzauen gure aitek harekin fuetie. Itxuraz, ba orduen, euzen konbidaute, zerea, horra, Ibar-guent Nausire. Aitte ta familia danak. Ta berak, pe hantxe; da orduen klaro berak dantzan in auen horreaz, mutil lagun horreaz. Da gero fuen zan Ibar-guent Nausire. Eta ordutik geixau etzakixen mutillek ezer ez nesken barri, ezebe etzakixen. Desagertu zan, Dontxok intzen holako lokal bat, ta jaten emun da... Auen, bueno, barruen ezkutau-te. Hormak intzela esaten auen, hormak intzela eta jaten botaten tziela esatena auien.

Eta behin, mutil bati sorgin edo andra baek esantzen "zuk emuten bustesu onenbeste diru (eztakitt diu asko zan, eztakit, hamazortzi mille pezeta) "nik esangotzut nun dauen".

*Aramaio ipuin eta legendak*

**BOTEPRONTOAN/ Eunice Astondoa · Australiatik Euskal Herrira etorri da bizi izatera, oraingoz Arrasatera**

*"Europar ikusi dudana ia lekuri politena da Barajuen"*

**E**unice Astondoa australiarra da jaiotzez eta han bizi izan da duela gutxira arte. Baina Euniceren abizenak adierazten duen moduan, euskalduna da izatez, aramaioarra, hain justu. Euskal Herrian bizi da orain dela urtebete pasatxotik; erroak topatzera etorri da hona: **Zelan bizi zara orain?** Oso ondo, oso bizimodu desberdina da. Aldaketa gura nuen eta betidanik gustatu izan zait hau. **Zein impresio izan zenuen etorri zinen lehen aldian?** Paisaia (mendiak, hondartzak...) asko gustatzen zait, eta Aramaio zoragarria dela uste dut; are gehiago, Europar ikusi dudana ia lekuri politena da Barajuen. Oso familia handia dut eta haiek ikustea ere gura nuen, orain arte harreman txikia izan dut-eta. **Zer gustatzen zaizu gehien?**

Jendea zelan bizi den. **Zergatik?** Ez zarete konturatzen, baina hemen errege-erreginak moduan bizi zarete, munduko beste pertsona batzuekin konparatuz gero. Zuen bizimoduaz gozatu egiten duzue; jendea kalera irteten da, afari-bazkariak egiten dituzue, jaiak... Australian ez dago hemengoak moduko jairik. Munduko leku askotan ez dago horrelakorik. **Han zelakoak dira, bada?** Anglosaxoiaren bizimodua lasaigoa da; lan egiten dute bakarrik, etxean askoz gehiago egoten dira, lorategia konpontzen... **Australian lanean zeunden?** Ingurumen Zientziak ikasi nituen, besteak beste, eta gobernuan lan egiten nuen Ingurumen Batzordean. **Eta hemen?**



Gustatuko litzaidake han egiten nuen gauza bera egitea, baina euskara eskatzen dute eta horretan nabil, euskara ikasten. Lanerako bakarrik...?

Ez, jendearekin hartu-eman izateko, euskara behar dut; nire familiarian euskaraz berba egiten ez duen bakarra naiz, eta "inozo" sentitzen naiz. Polita da euskara, gainera. **Anboto edo Ayers Rock?** Antzerakoak dira: Anboto sakratua da euskaldunendako eta Ayers Rocke aborigenendako. Desberdintasuna da aborigenek gurago dutela jendea ez ibiltzea euren mendian, eta hemen ez zaie inporta. **Eta, horrez gain, badugu beste antzekotasunik hangoekin?** Askok, eguraldia asmatzeko bideak, ehizatze modua, sendabelarren erabilera, musika asko gustatzen zaie, dantza egitea... eta dialekto asko dituzten lekuan, hemengo euskara batuaren antzekoa dute euren hizkeran.

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A

*Zugan pentsatuz, laguntzeko prest*

- Plantila bereziak, behar bakoitzak berea.
- Aluminiozko gurgil aulkia; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
- Ohe artikulatuak, koltxo bereziak.

*Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.*

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

**Uriarte**

**SPORT**

*Ondo pasau Santamas jaizak!*

Olarte, 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE


## ERRETRATUZAHARRA

Lehengo Santamasei  
begirada bat

**A**rgazkian ikusten duzuen gizonezko hori hasiera-hasieratik etorri izan da Santamasetako azokara. Ignacio Barrio Urtizberea da, eta 83 urte ditu gaur egun. Dagoeneko ez da etortzen azokara, baina osasun arazoengatik. Izan ere, Ignacio 1980. urteko abenduaren 22an etorri zen lehenengo aldiz Mondragoera, eta 20 urtez etortzen segitu du, bere danbolin, danbor eta bonbeteekin. Egun hotzak gogoratzen ditu Santamasetan: "Hotz handiak pasatzen genituen, izozteak, euria... baina ez zen beste azoka askotan izaten zen moduan. Mondragoen ez zintuzten esplotatzen; eguerdiko 14:00ak artekoa bakarrik izaten zen azoka (beste leku batzuetan gauera artekoa izaten zen); hortaz, 13:00ak

aldean txikiteoa egin, taloa jan... eta berotzen hasten ginen. Gero, bazkaltzera joaten ginen guztiok batera, eta han trikitixa batzuk dantza egin, eta akabo hotzak! Gainera, azoka ederra izaten da Santamasetakoa. Jende asko joaten da, saltokietara gerturatzen da eta zure lana zelan egiten duzun galdetzen dizu, polita da benetan. Era berean, gogoratzen dut lehenengo aldiz etorri nintzenean ez nuela autorik eta taxian etorri behar izan nintzela; baina etxetik gertu zegoen eta, gainera, ondo ordaintzen zuten mondragoetarrek".

**Argazkia:** Santamas Komisiñue  
**Informazioa:** Ignacio Barrio Urtizberea  
**Urtea:** 1980




## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Kanpanzar  
gaina eta  
zirkulazioa

**D**ebagoienetik Bizkai aldera joateko, Kanpanzarko bidea hartzen dugu ibarrekoak. Orain dela berrogei urte, errepideak ez ziren gaur egungoak modukoak, eta hara eta hona ibiltzen zirenak ere askoz gutxiago ziren. Kanpanzarko gainean dagoen etxea ere dezente aldatu da, eta azkenaldian bi lurraldeak elkartzen dituen errepidea egoera txarrean dagoela salatu dute askok.



± 1961 Argazki honetan azaltzen diren bi ziklistak errepide osoa dute euren dako. Gaur egun, ez da horrelakorik izaten.



2001 Eguneko 24 orduetan autoen joan-etorria sekulakoa da. Jende asko etortzen da kanpotik lanera, eta asko joaten da Bizkai aldera.



MEMESA

Industria  
hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Altzariak  
Diseinua  
ApainketaM  
ARENAZABizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

KONTRATAK

IRVROK S.L.  
ERAIKUNTZAKMeatzerreka, 5 bis • Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATEJEMI  
TAPIZ DENDA

- Altzarien konponketa eta tapizaketa
- Ibilgailuen tapizaketa
- Sofa-zorroak neurrira

Lantegia: Errebuelta, 6 behea  
Tel.: 943 79 56 23/606 88 33 38  
20500 ARRASATE

# Ehune

Apainketa



Oi neguko arratsak subaster txokoan  
Haizea ari dela txistuka kanpoan  
Atea hertsirikan suaren ondoan  
Elkarri kontra guziak berotzen sukaldean




Garibai, 8  
Tel: 943 77 11 48  
ARRASATE



**RENAULT**

# Renault kontzesionario batek gaur egun eskaintzen dizun guztia, zure eskura



Berrogei urte baino gehiago zure zerbitzura.

Zerbitzu azkarra eta Renaulten Menu Horia.

Renaulten gama osoa daukagu, Merkataritza eta Industria Ibilgailuak barne.

Aukerako ibilgailuetan eskaintza zabala.

## Zorionak eta urte berri on guztioi!

**MECA**

San Andres auzoa.

**ARRASATE.** Tel.: 943 71 24 72

Industri poligonoa (Anoeta).

**TOLOSA.** Tel.: 943 65 28 43

Amillaga, 5.

**BERGARA.** Tel.: 943 76 40 68

